



Aspanogi: Gipuzkoako haur minbizidunen guraso elkarte.
Aspanovas: Bizkaiko minbizidun haurren gurasoen elkarte.

03 ASPANOGI ETA ASPANOVAS Elkarteekin solasean

Begirada batek zenbat esan dezakeen, eta besarkada batek zenbat eman! Bizipenek eta bizipozek talka egiten dute askotan, baina baita elkar elikatu eta babestu ere. Olatuak haitza nola, halaxe kolpatzen du minbiziak bizimina, baina itxaropenaren itsasora itzultzen da aldiro. Bizitzaren abordaiaren denok elkarrekin goaz, eta indarra dute lemazain pirata ausartek. Bizikide eta bizilagun dira Aspanogi eta Aspanovas elkarteak. Abordatzera!



04 PIRATEN INDARRA

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Amaia Agirre Arrastoa

Ahotsa: Eñaut Elorrieta

Kolpea! Erraietan arrakala
beldurrak ahozabala
babesa ta zaintza profesionala
egia onartu ahala.

Haur baten begirada
Gazte baten besarkada
min eta bizimin
minbiziaren bi kriskitin
zu, ausardia, eredia, bizipoza
gu, familia, maitasuna ta bihotza.

Etxeko txikienen irrifarra
itzaltzen ez den izarra
hori da gidari dugun iparra
txapeldun baten indarra.

Elkarte baten babes sentipena
mediku talde onena
batuta errezagoa da dena
ez galdu itxaropena.

Haur baten begirada
Gazte baten besarkada
min eta bizimin
minbiziaren bi kriskitin
zu, ausardia, eredia, bizipoza
gu, familia, maitasuna ta bihotza.

Zu, ausardia, eredia, bizipoza
gu, familia, maitasuna ta bihotza.

BIZINAHIA!